



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 7koa, Mutrikuko Udalak legezko titulurik gabe burutu duen bizitoki jabedunean sartzeko atearen eta hormaren zati baten eraispenari buruzkoa.

Aurrekariak

(...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Mutrikuko Udalak, kontratatutako enpresa baten bitartez, bere jabetzako sarbideko atea eta hormaren zati bat eraitsi zuelako –kexagilea bertan bizi da-. Erreklamatzailleak jarduera hori une batez etetea lortu zuen baina bere jabetza obra-hondakinez beteta eta zati batez irekita geratu zen.

Interesdunak adierazi du bere jabetzakoa den lursaila nahitaezko desjabetze espediente baten menpe dagoela. Horri dagokionez, administrazioarekiko auzibidean errekurtsua aurkeztu da balio justua zehazte aldera baina hori ez da espediente honek hizpide duena. Gure esku-hartzea eskatzeko arrazoia hauxe da: udala bere etxebizitzan sartu zen, bere jabetzaren okupazioa justifikatzen zuen legezko titulurik gabe, administrazioak adostutako balio justua desjabetuaren esku jarri gabe eta etxebizitzan sartzeko epailearen baimena lortu gabe.

Kexa izapidetzea erabaki eta gero, 2009ko uztailaren 3ko idazkiaren bitartez, Mutrikuko Udalari zegokion informazioa eskatu genion. Aldi berean, nahitaezko desjabetzearen bidez lursailak okupatzeko egin behar diren oinarrizko izapideei buruzko azaleko azterketa aurreratu genion eta eskatu genion, hala bazegokion, etxebizitzan sartzeko epaileak ematen duen baimenaren izapidetzearen egoerari buruzko zehaztasunak bidaltzeko.

Gure informazio eskaeraren erantzunik ez genuenez jaso, 2009ko irailaren 30ean errekerimendu bat bidali genion. Udalak lehenengo informazio eskaerari 2009ko azaroaren 13an erantzun zion, desjabetze espedientearekin lotutako zenbait agiriren kopia bidaliz. Hala eta guztiz ere, ez zuten nahitaezko desjabetzea burutzeko jarraitu beharreko prozeduraren inguruan azaldu genituen gogoetei buruzko inolako baloraziorik egiten. Etxebizitzan sartzeko epaileak ematen duen baimenaren izapidetzearen egoerari dagokionez eta erreklamatzaillearen jabetzan egindako kalteak ere ez zituzten aipatu.

Edonola ere, emandako dokumentazioaren lehenengo balorazioa egin genuen eta udalari jakinarazi genion, gure azterketaren arabera, okupazio akta formalizatzeko jakinarazpena ez zegoela egiaztatua, beraz, administrazio egintza hori baliogabea zela desjabetutako lursailaren okupazioa legezkotzat jotze aldera. Horrez gain, berriz ere eskatu genion etxebizitzan sartzeko epaileak ematen duen baimenaren izapidetzeari buruzko informazioa bidaltzeko.

Bigarren informazio eskaera horren erantzunik ez genuenez jaso, 2010eko urtarrilaren 25ean, udaleko idazkariarekin zenbait kudeaketa egin genituen telefono bidez baina ez genuen emaitza positiborik lortu, hortaz, 2010eko maiatzaren 10ean





errekerimendu formala bidali genuen. Saiatu ginen berriro ere alkatearekin telefono bidez harremanetan jartzen baina ez genuen emaitza positiborik lortu. Horregatik, 2010eko urriaren 27ko eta 2010eko azaroaren 30eko idazkien bitartez udalera jo genuen berriro ere. Ez genuen erantzunik jaso.

Hori guztia ikusita, epaitzeko ditugun parametroekin bat etorritik eta eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:

Gogoetak

1. Espainiako Konstituzioak ezartzen dituen legezketasunari eta eraginkortasunari buruzko printzipioek -103. artikulua- herri-administrazio guztien jarduna bideratzen dute. Dena den, noizean behin, administrazioaren legezketasuna eta eraginkortasuna une oro tentsioan dauden aurkako alderditzat jotzen dira. Hori dela eta, ematen du jarduera eraginkorragoa lortzeko legezketasuna alde batera uztea zilegi dela. Printzipioen arteko banaketa edo lehia hori maiz prozeduraren ez betetzean islatzen da eta hori justifikatzeko administrazioaren jardunaren sinplifikazioa eta eraginkortasuna lortzeko egin beharreko eta garrantzirik ez duen sakrifizioa dela esaten da.

Administrazio prozeduraren eginkizuna ez da soilik administrazioaren ebazpen zuzenaren oinarria eta funtsa izatea. Prozedura osatzen duen izapide bakoitza interesdunaren eskubide subjektibo bat da, administrazioak hori betetzen ez duenean urratzen dena. Beraz, administrazio prozedura osoan ezarritako izapideak modu hertsian betetzearekin arduratsua izatea garrantzitsua da.

Herri-administrazioa eta ordenamendu juridikoaren arteko lotura positibo hori funtsezkoa da prozedura ez betetzeak eragindako pertsonen sortzen dizkien berehalako kalteak saihesteko, legezketasun-presuntzioaren eta administrazio-egintzen eta akordioen indar betearazlearen aurrean. Hauxe da neurritz gaineko ahalmen horien adibide argi bat: nahitaezko desjabetzea, zehazki, arau bihurtu den salbuespena, eragindako lursailen presako okupazioa. Izan ere, balio justuaren inguruko akordiorik gabe, administrazioak eragindako lursailak okupatzeko eskubidea dauka alde bakarrak erabaki duen prezioa esleitu edota ordaindu eta gero. Hori guztia kontuan hartuta, eragindakoak ezin du esku-hartze publikoa eten, ez betetzeak gertatu badira ere, eta ondoren geratzen zaion aukera bakarra kontrol judizialaren bidea da.

2. Bestalde, gaiaren mamia jorratu aurretik, daukagun dokumentazioarekin eta informazioarekin aztertuko duguna, salatu behar dugu Mutrikuko Udala ez zela erakunde honekin lankidetzan aritu. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -Ararteko erakunde hau sortu eta arautzekoaren- 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan aipatu dugunaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.





3. Azkenik, aurkeztutako kexaren inguruan, aurrekarietan adierazi dugun moduan, interesdunak berehalako kalteak eta legezko eskubideen zapalketa larria salatu ditu bi alderdiei dagokienez: epailearen baimenik gabe etxebizitzan sartzea eta lursailak okupatzea okupazio-akta formalizatu gabe eta prezioa esleitu edo ordaindu gabe. Mutrikuko Udalak, aldiz, beharrezkoak ziren izapide legalak bete zituela uste zuen baina ez zuen ezer aipatzen informazio eskaeran planteatu genizkion kontuen inguruan, ezta jasotako dokumentazio ez osoari buruz ere.

Interesdunak azaldu dizkigun kontuen harira ez datozen beste aurrekarien kaltetan izan gabe, daukagun informazioarekin, antzeman dugu Mutrikuko Udalak, 2007ko martxoaren 2tik aurrerako eraginekin, desjabetutako lursailen benetako okupazioa gauzatzeko jabetza agiria lortu zuela, bai eta gordailu-kutxan okupatu aurreko gordailu (20.568,72 euro) izapidearen betetzearen jakinarazpena ere. Data horretan udalak okupazio akta egin zuen eta agirian zera adierazi zuen:

“Interesatua jakinarazita egon arren ez da agertu, ondorioz bera aurrean egon gabe burutu da jabetze agiri hau.

Lurzatiaren Jabegokentzeaz ardatu egon dela agerian egon dadin, agiri hau hirukoiztu egingo da aurkeztu direnak irakurri eta onartuz gero izenpe dezaten.”

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, interesdunaren jakinarazpen bat dago, zeinetan interesdunari okupazio akta egiteko deitzen zioten, 2007ko otsailaren 8an. Horrez gain, 2007ko otsailaren 12ko datarekin zigilua "iraungita" daukan jakinarazpen saiakera bateko postetxearen egiaztagiria ere badago, interesdunak ez zuen jakinarazpena bulegoan jaso banatu zenean kanpoan zegoelako.

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.2. artikulua ezartzen du jakinarazpen bat balioduna izan dadila, inork jaso ez badu, gertaera hori espedientean jasoko dela, baita jakinarazpena egiten saiatu zeneko eguna eta ordua ere. Saiakera hori behin bakarrik errepikatuko da, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batean. Gainera, aipatu dugun artikulua beraren arabera, jakinarazpena ediktu bidez egin behar da, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, baldin eta jakinarazpena egitea ezinezkoa izan bada.

Hortaz, hurrengo hiru egunetan jakinarazteko beste saiakerarik egin ez zela eta beharrezkoa den iragarkia GAO n argitaratu ez zela aintzat hartuta, egindako jakinarazpena ez zen balioduna izan eta, ondorioz, udalak ez dauka desjabetze espedienteak hizpide duen lursaila premiaz okupatzeko baimena ematen dion legezko titulurik.

Bestalde, etxebizitzan sartzeko epailearen baimenari dagokionez, 2009ko ekainaren 15ean udalak sarbidea ixteko hormaren eta atearen eraispena hasi zuen eta, horren ostean, ez dugu inolako informaziorik jaso kontu honen





inguruan salaketak diona egiaztatzeko. Gai horri dagokionez, geroago, interesdunak salatu zuen udala saiatu zela zenbait jarduera burutzen berak zeukan atea ordezkatzeko (bere etxebizitzan sartzea galarazten zuena) hesi bat jarritz, aldez aurretiko baimenik eta jakinarazpenik gabe. Beraz, legezketasunik eza erakutsi zuen berriro ere epailearen baimenik gabe lursail jabedunean sartu baitzen.

A posteriori, interesdunak helarazi digun informazioaren arabera, jakin dugu Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak, 2009ko urriaren 19ko 373/09 autoaren bitartez, etxebizitzan sartzeko baimena ukatu zuela. Dena den, gorago adierazi dugun bezala, kaltea berehalakoa izan zen eta 2009ko ekainaren 15era arte mantendu zen. Izan ere, interesdunaren jabetza zati batez itxi gabe dago eta data horretan hasitako esku-hartzeari dagokion eraispen-materiala lursail jabedunean dago.

Erreklamazioaren zioa eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak ikusita eta gure esku-hartzeari hasiera eman genionetik administrazioaren laguntza eduki gabe igaro den denbora aintzat hartuta, gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut.

Ondorioak

1. Azaldutako gogoetei jarraiki, bukatzeko adierazi behar dugu Mutrikuko Udalak, legezketasunaren printzipioa betez, dagokion administrazio prozeduran beharrezkoak diren izapideak derrigorrez bete behar dituela eta ulertzen dugu izapidetu duen desjabetze espedientean ez dituela bete, aurreko gogoetan adierazi diren terminoetan.
2. Bestalde, esan behar dugu Mutrikuko Udalak ez duela ezein unetan Ararteko erakundearekin elkarlanean aritzeko jarrerarik izan eta, hala, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko goi komisario den aldetik, administrazioaren egintza ilegalak edo bidegabeak zuzentzen saiatzeko daukan betebeharra eragotzi du.
3. Azkenik, azpimarratu behar dugu larria dela udala lankidetzan aritzeko prest egon ez izana eta arrazoi hori dela-eta, ondorioen idazki honen bitartez, gure esku-hartzea amaitutzat eman behar izatea, ezin izan baitugu gure funtzioa eraginkortasunez bete.

